


2002ko UDAL INBERTSIOAK

Alde Zaharra berritzea eta Antziola-Latsunbe enlazea, obrarik haundienak

■ Gobernu taldeak egin du azken proposamena ■ Asteazkenean aurkeztu zuten, aurrekontuei buruzko laugarren bileran ■ Plenoak hartu behar du azken erabakia.



Antzolan rotonda egin eta gero, Latsunbekoarekin lotu nahi dute.

2002ko udal inbertsioen aurrekontua egin dago. Lau bilera egin dira udaletxean horretarako. Lehenbizikoa abenduaren 12an izan zen; azkena johan den hastean.

Lehenbizikoan Batasunako udal taldeak proposamena egin zuen. Hurrengoan herritarrek egin zuten berea. Hirugarrenean bien artean eztabaidatu zuten proposamen bakoitza. Azkenekoan zehaztu zuten plenoa zein proposamen eraman.

Orain, plenoaren esku

dago zer erabaki.

GARRANTZITSUENAK
Asteazkenean aurkeztutako proposamenaren aurrekontua da: 2.658.968,36 € (442.409.791 pta). Bi obra nagusi daude: 1) Antziola-Latsunbe enlazea eta 2) Alde Zaharra berritzeko hirugarren fasea.

Antziola-Latsunbe enlazea egiteko, lehenbizi Antziolako rotonda dago egin beharra. Rotonda egiten hastera orain-txe dijoaz.

Alde Zaharra berritzeko hirugarren faseak harrapatzen ditu: Iturriaga kalea eta Kale Nagusitik Tilosetarako karkaba zatia. Lehenbizi, ordea, bigarren fasea (Kardaberaz kalea) dago egiteko.

HERRITARREN PROPOSAMENAK

Proposamen definitiboa Gobernu taldeak hasieran planteatu zuenaren oso antzekoa da. Herritarrek eginiko proposamenetatik, hiru atera dira aurrera: 1) Martindegiko autobus parada estaltzea, 2) Sorgintxuloko oinezko bidea konpontzea eta 3) Kiroldegiko frontoia pintatzea.

Frontoiaren kasuan, udala Tilosetako pintatzekotan zen, baina, bilera hauetan erabaki da kiroldegikoak premia haundiagoa duela.

GAI BATZUK GERORAKO

Lau bilera hauetan, azaldu dira gai batzuk eztabaida piztu dutenak; horien artean: ikuskizunetarako leku egoki baten premia eta kirol taldeen subentzioak aztertzea.

Bi gai horiek lasaiago ezta-

ELUR-TXORI ELKARTEA

Atzoko bileran erabaki zen direktiba berria

■ Sozio guztiak bost taldetan daude, eta bi urtez behin egiten da talde aldaketa zuzendaritzan.

ELUR-Txori elkarteak bi urtean behin aldatzen du direktiba. Atzo onartu zuten zuzendaritza berria, erreleboz egokitzen zena. Azken bi urtetako direktibak eta orain datorrenak bazkaria egingo dute, ohiturari jarraituz. Datorren larunbatean, elkartearen bertan.

44garren URTEURRENA
Atzoko bileran erabaki zuten beste puntuetako bat izan zen, aurtengo urteurrenean zer egin. Orain artean bazkaria egin izan dute, baina aurtengo afaria izango da, jende gehixeago animatze aldera. Otsailaren 16an. □

Txotx denboraldia datorren ostiralean hasiko da, sagardotegi gehienetan

■ TXOTX denboraldia hasteko zorian da. Datorren ostiraletik otsailaren erdi aldera arte irekiko dituzte Hernaniko 12 sagardotegiak. Itxiera, berriz, Aste Santuaren aurreko asteburuan izango da, gutxi-gehiago. □

BERRIAK ELKARTEA

2003ko Erregetako kabalgata antolatzeke bilera bihar

■ BERRIAK elkarteak bilera antolatu du, 2003ko Erregetako kabalgata eztabaidatu eta antolatzeke. Interesa duten herritar guztientzat irekia da bilera. Bihar, asteartea, arratsaldeko 15:00etan, Sandiusterrin. □

BERTSOLARITZA

Tabernetako bertsolari txapelketa, ostiralean

■ Sei bertsolari ariko dira ■ Datorren ostiralean, gau-eko 22:30ak aldera, Garin tabernan.

ORDU txikitari tabernaz taberna kantatzen duen bertsolari asko da Hernanin, eta inguruetan. Ohitura bihurtu da dagoeneko bertsolari hauek arteko txapelketa. Aurten 8garren edizioa izango da.

SEITIK BI BERRIAK

Sei bertsolari ariko dira aurtengo edizioan ere: Xanta, Oxan, Xapo eta Barrene-txea, behin baino gehiagotan parte hartuak; J.A. Aranburu eta J. Aizpurua, fitxaje berriak. □

ETXE ONENAK, S.A.

GARAJE ITXIAK 'OBLATOS'ETAN SALGAI

Informatu eta saldu:
☎ 943 33.22.37

2002ko UDAL INBERTSIOAK 2.658.968'36 € (442.409.791 pta)					
GAIA	EUROAK	PEZETAK	GAIA	EUROA	PEZETAK
Zerbitzu Publikoak	758.700,59	126.235.640	Hezkuntza	258.438,31	43.000.000
Informatika	48.081,54	8.000.000	Ingurugiro Eskola: Arriatsu	240.407,73	40.000.000
Argia eta Ura	101.095,30	16.820.640	Ikastetxeak	18.030,58	3.000.000
Obrak eta Zerbitzuak	375.637,08	62.500.000	Hirigintza	1.317.620,68	219.231.000
Nekazaritza	4.808,15	800.000	Ikerketa eta proiektuak	60.101,93	10.000.000
Jardinak	9.015,29	1.500.000	Paradorea: barrua botatzea	305.175,78	5.000.000
Segurtasuna eta Osasuna	60.101,93	10.000.000	Antziola-Latsunbe enlazea	721.223,19	120.000.000
Kirol Instalazioak	49.884,60	8.300.000	Selak eta Besteak	85.531,06	14.231.000
Mantenimendu eta Obrak	54.091,74	9.000.000	Alde Zaharra: 3garren fasea	420.713,53	70.000.000
Martindegi: parada	42.071,35	7.000.000	Ongintza	102.028,14	16.975.851
Sorgintxulo: oinezko bidea	13.913,60	2.315.000	Zaharren Erresidentzia	30.050,96	5.000.000
Kultura	111.653,16	18.577.300	Administrazio orokorra	71.977,18	11.975.851
Areto Nagusia egokitzea	78.132,51	13.000.000	Kiroldegia	68.456,10	11.390.000
Fondo Bibliografikoak	33.520,65	5.577.300	Atletismo lokalak	60.101,93	10.000.000
Euskara	42.071,35	7.000.000	Haurtxoen aldagelak	1.803,06	300.000
Euskalgintzarako lokalak	42.071,35	7.000.000	Taberna egokitzea	3.546,01	590.000
			Gimnasioa: Taldeena	3.005,10	500.000

Hernaniko Kronikaren laguntzaile:

ORAUNE PROMOCIONES

Argitarapen honen laguntzaile:

CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA

Prezio batzuk igo egin dira euroa sartu denetik

■ Taberna eta kafetegietan izan dira igoerak ■ Ogia eta periodikua ere igo dira ■ Besteetan ez da aldaketarik izan: erropak, etxebizitzak...



'Redondeoa'-rekin arazo gutxi izan da. Makinak egiten du.

URTE hasieran nahaspila izan da gure poltsikoetan: batetik euroa sartu delako eta bestetik prezio batzuek aldatu direlako.

Batzuen ustez igoera euroak eragin du. Beste batzuek diote aldian behin egiten diren diokerekin koinziditu dela. Kontua da, produktu batzuk urte hasiera baino lehenago igo direla (ogia eta tabakoa, adibidez), eta hori izan da enpresek egin duten "trampa"

jendearen iritziz. "Prezioak aurretik igo eta kitto! horrela redondeoagatik ez da inor kejutuko" esaten zuen taberna bateko bezeroak.

Badirudi, eguneroko gauza txikiak igo direla gehiena: ogia, periodikua, kafea...

Hala ere, igo ez diren produktuak askoz gehiago dira.

IGO DIRENAK

Eguneroko produktuak eta tabernetakoak igo dira gehienbat.

Egunerokoak: ogia 10 pezeta inguru igo da. Periodikua ere 10 pezeta inguru (batzuk gehiago besteak gutxiago).

Taberna edo kafetegietan (taberna batetik bestera aldatu egiten dira): Kafea 10 pezeta inguru. Tabakoa 15 pezeta inguru. Kaña, kalimotxa, leña eta freskagarriak 25 pezeta inguru (taberna batzuetan), lehen 225 pta eta orain 250 pta (1,5 €). Ardo korrienteak: beltza, gorria, 10 pezeta inguru, lehen 50 pta eta orain 60 pta (0,35 €). Pintxoak 16 pezeta inguru, lehen 150 pta eta orain 166 (1 €).

Pelotazoak eta kopak ez dira igo eta zuritxoak, txakolina eta ardo bereziak ere ez.

IGO EZ DIRENAK

Arraiak eta haragiak ez dute gora egin. Baserriko produktuek ere ez (esnea, gazta, berdurak...). Erropak urteroko igoera izan du (% 5 inguru) eta etxebizitzetan-eta ez dirudi oraingoz antzemango denik. □

FUTBOLA -GORENGO MAILA-

Ebaindu ederra eman zion Hernanik Zarautzi (7-2)

■ Hernaniarrak goiko postuetan dira ■ Ikusle asko bildu zen Zubipen.



Seigarren gola dotore sartu zuen baselinaz Erkiziak.

ATZO arte bigarren zijoan Zarautz, baina Hernanik kupida haundirik gabe egin zituen harkikoak. Lehen zatia 2-0 bukatu zen etxekean alde; bigarrena hasi orduko beste bi egin zituen Hernanik eta 4-0 aurreratuta aixe eta alai jokatu zuten fubolean.

Hernaniarren golak: 1-0 Orbegozo (penaltiz); 2-0 Portillo; 3-0 Banch; 4-0 Rincon; 5-1 Portillok; 6-1 Erkizia; eta 7-1 Altolagirre. □

KIROLAK - ASTEBURUKO EMAITZAK

FUTBOLA	TALDEAK	FUTBOLA	TALDEAK	BOLEIBOLA	TALDEAK
Gorengo maila	Hernani 7-Zarautz 2	Kadeteak 2. Maila	Texas 9-Hernani 0	1. Autonomikoa	Errekalde 0-Hernani 3
1. Erregionala	Sto Tomas 3-Hernani 3	Haurren Ohor.	Hernani 3-Arrasate 0	ESKUBALOIA	TALDEAK
Gazteak. L. Naz.	Hernani 4-Real Union 2	ERRUGBIA		Euskal Herriko liga	Hernani 14-Askartza 14
Gazteak Ohor.	Hernani 2-Aldapetarrak 2	1 Euskal Liga	Gernika 28-Hernani 18	WATERPOLOA	TALDEAK
Kadeteak Ohor.	Antiguoko 2-Hernani 1	Jubenilak. Euskal Liga	Hernani 43-Getxo 0	Euskal Hko. Liga	UPNA 15-Hernani 7
		Kadeteak. Euskal Liga	Hernani 17-Arrasate 17	Euskal Hko 2. Maila	Hernani B 2-Osasuna 4

PELOTA	BIKOTEA	BIKOTEA	PELOTA	BIKOTEA	BIKOTEA
Kronika txapelketa	Tutu-Iturbe 22	Intraspue-Goiburu 11	GIPUZKOAKO TXAPELKETA		
EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA					
Jubenilak Paleta goma	Auñamendi 30	Burutaran-Valero 11	Eskuz infantilak	Zabala-Azpitate 18	Ikaskirola 5
Jubenilak Paleta goma	Auñamendi 27	Hoz-Lujanbio 30	Eskuz infantilak	Raimundo 8	Grajal-Ezeiza 18
Paleta goma	Auñamendi 13	Manzidor-Martinez 30	Eskuz infantilak	Ojel-Fernandez 18	Andazpe 7
UDABERRI TXAPELKETA					
Eskuz kadeteak	Oizpe 20	Arrieta 22	Eskuz kadeteak	Ezeiza-Gorrotategi 22	Andazpe 10
Eskuz Jubenilak	Alvarez-San Sebastian 22	Berriotxo 8	Eskuz kadeteak	Erdozio-Zurutza 22	Zurriola 9
			Eskuz Jubenilak	Otegi-Irazustabarrena 8	Andazpe 22

ERRUGBIA -LIGA NAZIONALA-

Hernaniarrak galtzaile, Gernikako partidu 'zikiñean'

■ 28-18 irabazi zuten bizkaitarrek ■ Partidu narratsa izan zen ■ Hernaniarrak 5garren dira, 10 puntuz.

UBELDU batzuk bai, baina punturik ez zuten ekarri hernaniarrek Gernikatik. Partidu gogorriari etxekeok atera zioten zukurik haundiena, eta sailkapenean Hernaniaren aurretik jartzea lortu dute bizkaitarrek. Bi hernaniar kanpora bota zituen epaileak.

Partidua galduta, hernaniarrak laugarren postutik bosgarrenera jeitsi dira. Nahiko toki onean daude oraindik, aurretik lau, baina, atzetik bost talde baitituzte. Hala ere, komeni zaie datorren astean Iruñari Landaren irabaztea, lasaitasuna galdu ez dedin. □

WATERPOLOA - EUSKAL LIGA -

Arbitroak etsai, galtzea egokitu zitzion Hernaniri Iruñan (15-7)

■ Hurrengo bi partiduak aurren-bigarren kontra ditu.

MUTILEN lehen taldeak galdu egin zuen Iruñan UPNA-ren kontra. Arbitroak 12 expoltsio pitatu zituzten hernaniarren kontra. Arbitroak 4 jokalaria partidu guztirako erretiratu arazi zituen, gainera. Hernaniarrak

saiatu ziren kontzentrazioari eusten hala ere, baina, hiru eta laugarren denboran beharra egin zuten.

Hernaniarren golak: Maroñok 2, Ion Casasek 1, Etxeberriak 1 eta Lunbrerasesk 3. □

JASOTA BEZALA

HERNANIKO EHIZTARIEN ONDOEZA

Paseko hegaztiak iparreko herrialdeetara bueltan joaten dira, Europa hegoaldean edo Afrika iparretik. Mogimendu horri kontrapasa deitzen zaio.

1998a ezkerreko, Gipuzkoan, uso ehiza otsail eta martxoan bakarrik dago onartua, kontrolatuta eta restringituta.

Kontrapasako ehizak zale haundiak ditu Hernanin; pieza bat lortzea hain zaila izan arren, beren jarduna eta afizioa mantentzen dute.

Kontrapasa errekupeari 1998an Txantxangorrik emandako ezetza losa astuna bihurtu da, Ehiza Federazioarentzat eta ehiza mota hau berreskuratu nahi duen

edozein elkarterentzat.

Hernaniko ehiztari talde bat ez dago gustora, egunean bi aldiz jaon behar baitute beren kirola praktikatzera Orio, Igeldo, Billabona edo Hondarribira; egunean behin puesto sortea eta hurrengo egunean ehizera.

Hau guztia Txantxangorriko direktibako jaunei eskerrak, aukera galdu baituzten. Esan behar zaie Hernaniko zenbait ehiztari kontrapasa berreskuratzea nahi dugula, Astigarraga, Belauntza, Berastegi, Billabona, Deba, Donostia, Getaria eta beste hainbat herritan bezalaxe.

ION AZPIAZU

* Kronikak euskeratua

ZERBITZUAK

TELEFONOAK

☎ Taxiak: 943 550093
☎ Udaltzaingoa: 943 333288
☎ DYA: 943 464622
☎ Anbulatorioa: 943 557750
☎ Jokalari anonimoak: 943 331103

FARMAZIAK

☎ Egunez: Chucla Kardaberaz 48 ☎ 943 551793
☎ Gaeuz: Zatarain Andoain. Arteta z/g ☎ 943 290802
☎ **ASTEARTEA**
☎ Egunez: Correa Antziola 44 ☎ 943 551933

☎ Gaeuz: Gorospe Andoain. Rikardo Arregi 12 ☎ 943 592415

ASTEAZKENA

☎ Egunez: Aizpuru Latsunbe Berri 11 ☎ 943 336077
☎ Gaeuz: Gil Lasarte. Nagusia 24 ☎ 943 361529

IRAGARKI MERKEAK

En Donostiako Antiguu auzoan, euskaraz dakien pertsona bat behar dugu goizetan haurra zaintzeko. Deitu: 943 215510 (Amaia)

Argitalpen hau, honako entitate hauen laguntzari esker argitaratzen da:



HERNANIKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Departamentuak



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

EUSKO JAURLARITZA

Kultura Sailak diruz lagundua